

Irakaskuntza helburuak

Gradu honen helburu nagusia gradudun egokigarria, industriaren arlorako balioaniztuna eta orotariko prestakuntza duena prestatzea da. Horretarako, graduak oinarri zientifiko eta teknologiko sendoak emango dizkio ikasleari, arrakasta izateko ziurtasuna izan dezan, berezko jarraipena den Industria Ingeniartzako master titulura bideratzeko ikasketetan sartzera baino ez ezik, bere bizitza profesionalean zehar jasotzen duen edozein prestakuntza espezializatutarako ere bai. Titulazio honetako gradudunek industria ingeniari tekniko baten pareko lanak egiteko gaitasuna emango dieten ezagutza orokorrak jasoko dituzte.

Ikasten diren gaiak

- Elektroteknia, mekanika aplikatua, termodinamika, elektronika orokorra eta industrialia.
- Materialen elastikotasuna eta erresistentzia, jariakinen mekanika eta makina hidraulikoak.
- Ekonomia industrialia eta enpresa administrazioa.
- Egituren teoria, eraikuntza eta arkitektura industrialia, motor termikoak, fabrikazio teknologia eta makinena.
- Materialen teknologia, ingurumenaren teknologia.
- Garraioaren, automobilen, burdinbideen ingeniartzak.
- Zentral termoelektrikoak, makina elektrikoak, energia iturri berriak.
- Pneumatika eta oleohidraulika.
- Teknologia kimikoa.

Gradua orotarikoa da, eta zuzeneko sarbidea ematen du Industria Ingeniartzari buruzko unibertsitate-mastererako, hau da, industria ingeniariaren lanbiderako araututa dauden eskumen guztiak ematen dituen masterra egiteko.

Kredituen koadroa

Kreditu kop. guztira: 240 ECTS

Irakasgai modulua	Eskainitako kredituak	Egin beharreko kredituak
Oinarrizko prestakuntza	60 ECTS	60 ECTS
Oinarrizko prestakuntzan sakontzea	30 ECTS	30 ECTS
Industria adarreko gai komunak	72 ECTS	72 ECTS
Industria Ingeniartzako zenbait arlotako espezialitateko irakasgaiak	48 ECTS	48 ECTS
Hautazkotasuna	108 ECTS	24 ECTS
Gradu amaierako lana	6 ECTS	6 ECTS

ECTS: European Credit Transfer System (Kreditu Transferentziako Europar Sistema)



Irtenbide profesionalak

Graduaren helburu nagusia industria ingeniari baten eskumen guztiak ematen dituen masterreko sarbidea prestatzea bada ere, titulu honen proposamena gutiz bateragarria da enpresa batean dauden eginkizunetako edozein (ingeniaritza, diseinua, fabrikazioa, kalitatea, erosketak, I+G eta abar) bete eta enpresaren kudeaketa globala egin dezaketzen gradudunak lau urtegarrenean prestatzearekin.

Enpresa industrialia irtenbide klasikoa da, baina horrez gain lanbidea beste langune batzuetan ere egin daiteke, hala nola zentro teknologikoetan, herri administrazioan eta abar.

